

mendia ▸ **IBILBIDEAK**

Perilde, Gorobelgo uren hurrupatzailea

Gorobel mendilerroan gaindi ibiliko gara, lurrazaleko uren gordelekua deskubritzeko asmoz

JOSEAN GIL-GARCIA

Mijala eta Llorenxoz herrietara doan errepide estua hartuko dugu Villalba de Losa herri inguruan. Mijalako San Pedro elizaren parean garela, intxaurren batzuk hazten diren lekuan utziko dugu autoa. Bertan abiatzen den errepidetxo lagun, ibili-ibilian hasiko gara iparrerantz. Santiago Monumentu Naturaleko esparru naturalean diseinatutako ibilbideetako bat baita haxe, marka zuri-horriak lagungarriak izango ditugu. Porlanari tarteak utziko dio errepidetxo aurrerago, eta, sigi-saga eginenez, herria inguratzen duen azken etxeraino iritsiko gara. Etxetzar horren aurretik igaro eta goratasuna hartzen segituko dugu, bideko harri xabalak bidaide. Panoramika ederra izango dugu, bi muino deigarrik baldintzatzen baitituzte Mijala herriaren kokapena eta paisaia.

PERILDETIK ATEZABAL ATAKARA. Etxalde baten ertzetik igaro, eta, hasierako norabideari men eginda, Txarrazo mendi gaineko monumenturantz bideratuko ditugu gure pausoak, eskuin-ekzer egin gabe. Harri xabalek larreei utziko diete tarteak laster. Desnibel gutxi-ko paraje berde-berdean gaude orain, hots, elorri zuriek menderatzen duten eremu lauan. Punturik gorenera iritsita, adi ibili behar dugu bide zuzenari eusteko; izan ere, bide sarda baten aurrean gaude, eta zidorrak banantzen dira. Txarrazorantz doan igarobide zuzena bezain zabala ikusten badugu ere, bide nagusitik irtingo gara, eta, 90º ezkerrera eginenez, Perilde deritzan haitzulo naturala ikusteko parada izango dugu. Sakonune karstikoan baitago, ibiltariaren sena behar-beharrezkoa da koka-penarekin bete-betean asmatzeko.


Haitzulotik irten eta bide nagusiari eutsita berriz, iparrera egitea-rikingo diogu, Txolope eta Solaiera mendietako hegoaldeko bazter-rrak buruz buru ditugula. Lau bideren elkargunera iritsiko gara berehalakoan. Aurrera egingo dugu han, muino baten gainean di-



Perilde haiztulo ilunak lurrazaleko urak irensten ditu. JOSEAN GIL-GARCIA

Erreferentziak

00:00	Mijala herria
00:25	Perilde haiztuloa
01:15	Atezabal ataka
01:50	Txarrazo
02:05	Fraileburu
02:20	Pozalagua
02:25	Dorada haiztuloa
03:00	Mijala herria



Desnibela	300 m
Zailtasuna	***
Luzera	12 km
Denbora	3 ordu

ren bi argindar haberen erreferentzia hartuta. Zehar-zehar eramango gaitu pista nagusiak, ibar xume bat eskuinaldean uzten ari garen bitartean. Landaretza oparoan gaindi ibiliko gara, gorostiak, elorri zuria eta beltzak, txilarrak eta ipar ipuruak, besteak beste, nagusi direla. Pagadiraino lagunduko digu bideak. Eskuinerantzko bira xumea egingo dugu hara iritsita-koan, eta ibarra burutik buru zeharkatuko. Gero ezkerrera egingo baitu bideak, goratasuna hartuko

dugu, pagadian gaindi ipar-ekialdeko norabideari eutsita eta harri karstikoak lurrazalean direla. Ezkerraldeetik xenda bat batzeko une-an, eskuinera egingo dugu, eta, Burgosko probintziari dagozkion PR zidorraren markari segituta, Atezabal atakara iritsiko gara.

Perilde haiztuloa sakonune karstikoan dago; kokapena asmatzeko, ibiltariaren sena behar-beharrezkoa da


Arrastaria ibarra bistan izango dugu, baita ehunka metroko desnibel ikaragarria ere.

POZALAGUA ETA DORADA HAITZULOAK. Eskuinera egingo dugu Atezabalen, eta amildegiaren konpainian segituko dugu, Solaierako mendi ton-torreraino. Urduñako hiria bete-betean harrapatuko du gure so-jostalariak. Txolope gailurrera iritsiko gara ondoren, paseo goxo-aren eta ederraren ostean. Txarrazo mendia okupatzen duten monu-

mentu eta hedagailuak gertu-gertu ditugula dagoeneko, ziztu bizi-ian iritsiko gara hara, jaitsiera xumea egin ostean, alegia.

Gailurreraino igotzen den pista-tik jaisten hasiko gara, Fraileburu harritzko monolitoa deskubritzeko asmoz. Txarrazotik hamabosten bat minutura ikusiko dugu. Erreferentzia gisa, pista ondoko bi argindar habe har ditzakegu. Izan ere, bertara iritsita, monumentu naturala gandorretik hurbil ikusiko dugu. Eskuinera eginda argindar habeetan, haatik, Mijalara itzulera egingo dugu.

Fraileburu monolitoaz dezente gozatuta, larreetan gaindi segituko dugu, mendevalderantz. Hala, bidegurutze batera iritsiko gara, pistatik hamar minutura. Bide nagusiak eskuinera egingo baitu han, zuzen-zuzen joko dugu. Pozalagua ur putzu zabalaren ezkerretik igaroko gara ondoren, eta hego-mendebalera egingo. Edan-leku bat atzean utzi eta berehala, Dorada haiztuloaren aldamenetik igaroko gara. Perilde baino askoz txikiagoa baita, ahalegin handiagoa exijituko digu horrek, benetan deskubrituko badugu. Bide nagusiaren ezkerrean dago, hala ere. Joaneko bidearekin bat egin-da, Mijalara iritsiko gara zuzenean.



Eguraldiak eragina du zure bizitzan. Toki bakoitzeko eguraltiaren berri zehatza izatea oso mesedegarri izan liteke zuretzat. Gure herriko informazio meteorologiko guztia aurkitzeko

www.euskalmet.net



aurrerak doan herria

